

## Manifiesto “La guerra empieza aquí, parémosla aquí” (Marzo 2018)

La guerra es un crimen contra la Humanidad. La construcción de un mundo justo conlleva, ineludiblemente, no apoyar ninguna guerra y luchar por la erradicación de todas sus causas. Sin embargo, los gobiernos occidentales malgastan miles de millones de euros al día en gastos militares generando directa o indirectamente guerras de diverso tipo para defender sus intereses. Así, detrás de toda guerra hay intereses económicos o geoestratégicos de gobiernos o transnacionales, y los ejércitos son, precisamente, el instrumento para garantizar esos intereses, independientemente del sufrimiento humano que generen.

El sufrimiento que ocasionan los ejércitos es indescriptible. Las guerras provocan muerte y destrucción allá donde llegan, suponen una violación flagrante de los derechos humanos y fuerzan desplazamientos humanos. De hecho, los conflictos bélicos y sus consecuencias a corto y medio plazo son la principal causa de las migraciones forzadas en el mundo. Cada año millones de personas abandonan sus hogares huyendo de la guerra y la violencia. Entre ellas, las mujeres viven procesos migratorios especialmente crueles, siendo víctimas silenciadas de violaciones y de trata. Mientras, los gobiernos occidentales se dedican a levantar muros de iniquidad para evitar que esas personas puedan salvarse y rehacer sus vidas. La ingente inversión en impedir la migración de estas personas mediante la vigilancia, la construcción de muros, la instalación de concertinas... resulta obscena en comparación con el dinero destinado a ayudarlas –a veces simplemente para evitar que mueran–. De hecho, los gobiernos de los países enriquecidos y parte de la ciudadanía parecen olvidar que esas personas normalmente huyen de realidades donde la muerte y miseria han sido inducidas por Occidente.

Sin embargo, aunque las guerras se planifican meticulosamente en lujosos despachos de élites poderosas, las guerras empiezan en nuestros barrios, en nuestros pueblos. En ellos hay empresas que se dedican al diseño y fabricación de armas muchas veces financiadas con nuestros impuestos. Estas empresas utilizan nuestras infraestructuras (carreteras, puertos, aeropuertos...) para transportar y vender esas armas al mejor postor que las utilizará en guerras presentes o futuras. Y estas armas, diseñadas o fabricadas aquí, destruirán países y matarán personas, amparadas o no en la legalidad internacional.

Además, los gobiernos, respaldados por los votos, destinan anualmente ingentes recursos económicos a gastos militares para adquirir armamento y sostener un ejército bajo falaces argumentos como la defensa del terrorismo o las misiones de paz. Según el SIPRI, el gasto militar mundial ascendió a 1,74 billones de dólares en 2017. Debemos preguntarnos qué mundo estamos construyendo con tanto dinero dilapidado y, a la vez, qué mundo podríamos construir dedicando todos esos recursos a construir un mundo en paz, sin guerras y sin ejércitos. Encargar a un ejército una misión de paz es similar a enviar a un pirómano a sofocar un incendio.

Por todo ello, apoyamos la iniciativa *5M, el abrazo de los pueblos*, como una forma de denunciar las guerras y sus consecuencias. **No a las guerras**, a ninguna guerra. **No a los ejércitos**, a ningún ejército. **No al gasto militar**, a ningún gasto militar. **No a la fabricación y exportación de armas**, de ningún arma. **Para la guerra, nada**. La guerra empieza aquí y podemos pararla aquí. Denunciemos toda iniciativa y medida que apoye la preparación de la guerra y generemos alternativas de paz mediante la no violencia y la desobediencia. **La guerra empieza aquí, parémosla aquí**.

## “Gerra hementxe hasten da; gera dezagun bertan” Manifestua (2019ko Martxoa)

Gerra Gizadiaren kontrako krimena da. Mundu justu bat eraikitzeak eskatu egiten du, ezinbestean, gerrarik ez babestea eta bere zergatiko guztiak ezabatzeko borrokatzea. Aitzitik, mendebaldeko gobernuak egunean milaka miloi euro xahutzen dituzte gastu militarretan, euren onurarako mota ezberdinetako gerrak sorraraziz, zuzenean zein zeharka. Hortaz, edozein gerraren atzean egon badaude gobernu edota multinazionalen interes ekonomiko edo geostrategikoak, eta armadak badira, hain zuzen, interes horiek babesteko tresna, sortuko duten giza sufrimendua edonolakoa dela ere.

Armadek sortzen duten sufrimendua ikaragarria da. Gerrek heriotza eta suntsipena sorrarazten dute heltzen diren tokietan; giza eskubideen urraketa nabarmena eragiten dute eta gizakien lekualdatzeak eragiten dituzte. Izan ere, gatazka armatuak, eta epe laburrean zein erdian izaten dituzten ondorioak, badira munduan zehar gertatzen diren behartutako migrazioen arrazoirik nagusia. Urtero milioika lagunek gerra eta biolentziatik ihes eginez euren etxetatik alde egiten dute. Hauen artean, emakumezkoek jasaten dituzte migrazio prozesu bereziki ankerrak, bortxaketa eta salerosketa isilduen biktimak direlarik. Bitartean, mendebaldeko gobernuak harresi bidegabeak eraikitzen dituzte pertsona horiek onik atera daitezela eta haien bizitzak berregin ditzatela eragotziz. Lagun hauen migratzea saihesteko egiten den inbertsio itzela, zaintza egiteko dela, harresiak eraikitzeke dela, kontzertinak instalatzeko dela... lizuna suertatzen da beraiek laguntzeko –batzuetan bakarrik heriotza saihesteko- bideratzen den diruarekin konparatzen badugu. Aberastutako herrialdeetako gobernuak eta hiritargoaren zati batek ahaztu omen dute ezen, pertsona horiek Mendebaldeak eragindako heriotza eta miseriatik ihes egin ohi dutela.

Baina, egia bada ere gerrak elite boteretsuen luxuzko bulegoetan zehatz-mehatz planifikatzen direla, gerrak gure auzo eta herrietan hasten dira. Horietan armak diseinatu eta egitera emanda dauden enpresak egoten dira, sarritan gure zergen bidez finantziaturik. Enpresa hauek gure azpiegiturak (errepideak, portuak, aireportuak...) erabiltzen dituzte arma horiek garraiatu eta eskaintza onenaren egileari saltzeko. Erosle honek gaurko zein geroko gerretan erabiliko ditu. Eta arma hauek, hemen bertan diseinatuta edota eginda, herriak suntsitu eta pertsonak hil egingo dituzte, nazioarteko legalitateaz babestuta edo babestu gabe.

Gainera, gobernuak, botoek lagunduta, baliabide ekonomiko itzelak bideratzen dituzte gastu militarretara urtez urte, armamentua erosteko eta armada izateari eusteko, terrorismoaren defentsa edota bake misioen bezalako argudio engainagarriak erabiliz. SIPRIren arabera, munduko gastu militarra 2017. urtean 1,74 biloi dolarrera iritsi zen. Gure buruari galdetu behar diogu ea zein mundu mota ari gara eraikitzen honelako dirutza alferrik xahututa eta, era berean, nolakoa litzatekeen baliabide guzti horiek bakean dagoen mundu batera, gerra zein armadarik gabekora, bideratuko bagenu eraiki genezakeen mundua. Armada bati bake misio baten ardura ematea piromano bati sute bat itzaltzera bidaltzea bezalakoa da.

Hau guztia dela eta, *5M*, *Herrien besarkada* inizatibarekin bat egiten dugu, gerrak eta beren ondorioak salatzeke bide bat delakoan. **Gerrari ez**, inongo gerrari ez. **Armadari ez**, inongo armadari ez. **Gastu militarri ez**, inolako gastu militarri ez. **Armak fabrikatze eta esportatzeari ez**, inolako armari ez. **Gerrarentzat, ezer ere ez**. Gerra hemen hasten da eta bertan geratu ahal dugu. Gerra prestatzea babesten duen edozein inizatiba edota erabaki sala dezagun, eta sor ditzagun bakerako aukerak biolentziaren ezaren eta desobedientziaren bitartez. **Gerra hementxe hasten da; gera dezagun bertan.**

**Colectivos antimilitaristas que apoyan este manifiesto:**

- Plataforma por la Desobediencia Civil
- KEM-MOC (Bilboko Talde Antimilitarista)
- Kakitzat (Kordinadora antimilitarista)
- Grup Antimilitarista Tortuga
- Desarma Madrid
- Asamblea Antimilitarista de Madrid
- Alternativa Antimilitarista-MOC
- ADN V Canarias